

Euskal AEko industria-jarduera %0,8 jaitsi zen 2023ko urrian


Produkzioa %0,4 jaitsi da aurreko hilaren aldean

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino %0,8 txikiagoa izan da 2023ko urrian. 2023ko lehenengo hamar hilabeteetan metatutako produkzioa aurreko urteko aldi metatuan izandakoa baino %0,4 txikiagoa izan zen.

Aurreko hilaren aldean (2023ko iraila), Euskal AEko industria jarduera %0,4 murriztu da urri honetan, urtaroen eragina zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Bitarte-ondasunetan* produkzioaren urte arteko jaitsiera %3,2koa izan da, hala nola metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioan, industria kimikoan eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioan.

Kontsumo-ondasunek ere urte arteko joera negatiboa izan dute 2023ko urrian, produkzioa %3,2 murriztu baita sektore osoan. Jaitsiera hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* joerak eragin du; besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioak izan du eragina, %18,1eko murrizketa izan baitute. *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* produkzioa, aldiz, %1,1 igo da: besteak beste, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Energiaren produkzioa ere jaitsi egin da 2023ko urrian, %9,5 urte artean. Sektore honetan sartzen dira, hala energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura, nola petrolioaren finketa.

Aitzitik, *Ekipo-ondasunetan* produkzioa %7,1 igo da aurreko urteko urriaren aldean. Horien barruan sartzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautika- edo ontzigintza-eraikuntza

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-0,8	-0,4	-0,4
Araba/Álava	-1,5	0,2	-1,3
Bizkaia	-1,5	-0,1	-1,1
Gipuzkoa	0,4	-0,9	0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-3,2	0,3	1,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-18,1	-10,4	2,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,1	3,0	1,7
Ekipo-ondasunak	7,1	3,5	0,8
Bitarteko ondasunak	-3,2	-0,6	-1,5
Energia	-9,5	-9,7	-2,3

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarilek behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Abenduaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal AEko industria-sektore garrantzitsuenen artean, urte arteko hazkunde handiena izan duten sektoreak hauek izan dira: *Garraio-materiala* (%6,6), *Makineria eta ekipoa* (%5,6) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (%5,6). Aitzitik, 2023ko urrian urte arteko jaitsierarik handiena izan dutenak *Energia elektrikoa*, *gasa eta lurruna* (%12,6) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (%12,0) izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urria 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	0,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-12,0
Kautxua eta plastikoak	-4,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	-2,7
Materiala eta tresna elektrikoak	5,6
Makineria eta tresneria	5,6
Garraio-materiala	6,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-12,6

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Abenduaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko urrian, negatiboa izan da Araban eta Bizkaian Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera, bietan %1,5eko jaitsiera izan baitu. Gipuzkoan, aldiz, industriaren sektoreak %0,4 egin du gora 2022ko urriaren aldean.

2023ko URRIKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen hamar hilabeteetako metatua, Industria-Produkzioaren Indizea %0,4 jaitsi da, *Energiaren* %9,7ko jaitsierak eraginda. *Bitarte-ondasunek* ere bilakaera negatiboa metatu dute (%0,6ko jaitsiera), aurreko urteko aldi berarekin konparatuz. *Ekipo-ondasunetan*, aldiz, urrira arte metatutako produkzioa %3,5 igo da eta, azkenik, *Kontsumo-ondasunetan* % 0,3.

Lurralde Historikoka, 2023ko lehen hamar hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Bizkaian eta Gipuzkoan, %0,1eko eta %0,9ko jaitsierekin, hurrenez hurren. Araban, azkenik, produkzioaren igoera metatua %0,2koa izan da urteko lehen hamar hilabeteetan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%91,07ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62